


Liburuak

KRITIKA

Falo zantarra.
Joane Barolo.
Elkar, 1988. 76 orrialde. 7,30 euro.



Hemeroteka

Gorka Bereziartua

Filosofia putetxean

EZER BAINO LEHEN bekataria seinalako dut, inor despistatuta ez harrapatzeko: Jose Ignazio Basterretxea gorde zen, 1988 hartan, Joane Barolo izenaren atzean. *Falo zantarra* nobela laburra –hitz bakarra beharko genuke, frantsesen *nouvelle* hitza esateko– idatzi zuen; eta ondoren, denbora luzez, unibertsitaterako testuak idatzi zituen, saioak eta beste, 2006an *Marearen erraietan* nobelarekin literaturaren esparrura bete-betean itzuli zen arte.

Falo zantarrari giderrari bezala heldu, eta azalean “euskaraz literatura erotikoa” irakurri dut; kontrazalean berriz, “nobela porno bat” dela. Euskaraz gehiegi garatu gabeko generoa da oraindik ere, Txalaparta argitaletxearen *Literotura* bilduma kenduta, noski. Alde horretatik, nobela honi existitzea bera eskertu behar zaio aurrena, bere momentuan euskaraz generoko ale bakanetakoa izango baitzen segur asko. Horrek arriskuak ere baditu herri honetan. Hemendik urte batzuetara filologoren batek liburua deskubritzen badu, duda gutxi izan: daukan lexiko sexual guztiak glosario batean bukatuko du.

Behingoz liburuaren edukietan sarketa egite aldera: istorio sinplea da nobelakoa. Joango da gizon bat ipularretako auzo bateko putetxera; igoko ditu lau solairu, eta bakoitzean sexu harremanak izango, emakumeekin, gizonekin, haurrekin eta bestelako jostailuekin, baita tartean, analepsi bat eginez, gazteago zenean ezagutu zituen neska-mutilekin ere. Parte hori kenduta, istorioa lineala da, eta ez du bestelako konplikazio narratiborik.

Dauzkan inpotentzien artean, esango nuke pasarte batzuetan antzematen zaiola zerbait gehiago izateko pretentsioa. Etengabeak dira giroa deskribatzeko ahaleginak, eta tartea kentzen diote generoko lan batek izan beharko lukeen eduki zentralari: haragiari. Horrek eramaten du halako indefinizio batera; trukean, eskura daukagu espero izatekoa zena baino kalitate handiagoko narrazioa. Bistan da, bazegoen idazle bat Joane Barolo gaztearen atzean, gerora Basterretxeak ongi erakutsi duenez.

Gainontzean, titulua irakurrita igartzen da faloa dela nobelaren totema, eta beraz, subjektua gizona dela. Hala ere, protagonistak dituen harreman mota ugarietako esker, ez gaude ar heterosexualean kontsumo eskusiborako liburu baten aurrean: lorpena, hori ere.

Esan dut gorago, ez da asko landu euskaraz literatura pornoa. Zalantza dut, bere horretan landuko ote den ere. Azken hamarkadetan ikus-entzunezkoek zulo estua utzi diote letrei alor horretan. Baina, bestalde, ikusita geroz eta sexu gogorragoz bete zaigula literatura estandarra –Houellebecq irakurri duzue?–, eta aukera sexual diferentek geroz eta zabalduago daudela, beharbada mereziko luke generoak eskaintzen dituen aukerak berriz aztertzea. Apaingelakoa ere filosofia baita, azken finean. ■

Juan Mari Lekuonaren omenez, hainbat idazlek

2005ean hil zen Juan Mari Lekuona idazle eta apaiz oiartzuarra. Hil bai, baina ez desagertu, egindakoak ondorengoontzako geratu baitziren. Dena dela, haren lanez gain bestelako hurbilpena egin nahi duenak, aukera aukerako liburua du *Juan Mari Lekuona hurbiletik* (1927-2005) izeneko hau. Hainbat idazlek elkarlanean idatzi dute, tartean, Anjel Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Otaegi, Ana Toledo


edo Joxe Austin Arrieta, besteak beste. Euskaltzaindiak eta Oiartzungo Udalak elkarlanean argitaratu dute lana, eta hiru zatitan banatua dago: Lekuonaren “gertuko erretratu”ek osatzen dute lehena; haren bizitza iruditan bildu dute bigarrenean; eta hirugarrenean, literatura ikerketan eta poesian egindako lanak nabarmendu dituzte. ■



Juan Mari Lekuona hurbiletik.
Batzuen artean.
Euskaltzaindia
207 orrialde.
11,40 euro.

Maradonaren biografia, Silveiraren eskutik

“Barrilete kosmikoa, zein planetatik etorri zinen bidean hainbeste ingeles uzteko?” galdetu zuen bere onetik aterata esatari batek, Diego Armando Maradonak 1986ko Munduko Txapelketan historiako golik onena sartu zuenean. Orain, Xabier Silveira bertso-lari eta idazleak esaldi hori berreskuratu du futbolariaren biografiarako. *Maradona, barrilete kosmikoa* Txalaparta argitaletxeak publikatu du, haur eta gazteei zuzendutako *Axuri beltza* sailean. Nola publikatu ere: Eduardo Galea-noren hitzaurrea dakar, edizio zaindua –azal barruak eta lehen orriak futbol zelai baten itxura dute–, baita futbolariaren bizitzako hainbat argazki gogoangarri ere. ■



Maradona, barrilete kosmikoa.
Xabier Silveira.
Txalaparta.
62 orrialde. 10,40 euro.